

# 'Easoko ederrak' Bilbon

Hika Antzerki Taldeak euskarazko estreinako emanaldia aurkeztuko du gaur

**H**ika Antzerki Taldeak Heuskaraz aurkeztuko du 'Easoko ederrak' antzezlan musikala gaur Bilbon. Donostiako Orfeoiko Kantu Eskolako hamabi lagunek antzeten dute Hikak produzitutako obra hau. Antzerki taldeak 'Henry Bengoa inventarium' obra estreinatzeke asmoa du irailaren erdialdera.

A. ORMAETXEA / DONOSTIA

'Easoko ederrak' antzezlan musikalaren euskarazko emanaldia estreinako eskainiko du Hikak gaur Bilboko Karmengo aretoan. Gaueko 21.00etan hasiko da ikuskizuna eta gauerdiko 24.00etan gaztelerazko bertsioa eskainiko da.

Agurtzane Intxaurreaga Hikako zuzendariak gidatutako obra da 'Easoko ederrak', eta Donostiako Orfeoiko Kantu Eskolako hamabi lagun dira aktoreak. Intxaurreagak EGUNKARIARI azaldu dionez, antzezlan eta musika da ikuskizuna, hau da, musika eta antzerkia batu egiten dira hemen: erdia da musika eta antzerkia beste erdia.

Aktoreek abesten dituzten hamabost kantuak dira antzezlanaren oinarria. «Hamar emakume lehenengoz biltzen dira emanaldi bat eskaintzeko. Emanaldia beren estreinua da eta kontzertu serioa eskaini nahi dute. Baina gauza endredatu egiten da eta kontzertua, serioa beharrean, barregarria gertatuko da», adierazi du Intxaurreagak antzezlanaren haria azaltzeko.

«Obrak osagai onak ditu. Musika ona da eta aktoreek abesten dituzten kantuak ezagunak», zehaztu digu obraren zuzendariak. Zarzuelak, kantu izpiritual beltzak, musikal amerikarrekoak



Donostiako Orfeoiko Kantu Eskolako ikasleek antzeten dute Hikak ekoiztutako obra hau.

EDURNE KOCH

eta alemanak dira hamabost kantuak. Abestien jatorrizko hitzak aldatu egin dira 'Easoko ederrak' obrarako, baina hizkuntzari dagokionez batzuk jatorrizko bertsioan abestuko dituzte aktoreek. Euskarazko emanaldian ingelesez abestuko dira hiru kantu, bi gazteleraz eta euskaraz gainontzekoak. Gauerdiko 24.00etan gazteleraz egingo den ikuskizunean berriz hiru dira ingelesez, bi euskaraz eta besteak gazteleraz,

'Easoko ederrak' ikuskizuna maiatzaren 17an taularatu zen lehenengo aldiz. Harrezkero, hiru alditan antzeztu da eta gaur Bilbon egingo diren bi emanaldiak gehituta bost antzeppen izango ditu obra honek. Irailaren 2an Donostiako Victoria Eugenia ikusi ahal izango da eta Legazpin irailaren 16an. Bai Oiarzunen bai Donostiako Loiola

auzoan ere emanaldi bana egitea aurrakusi du Hikak.

'Easoko ederrak' ikuskizunarekin urrats berrian abiarazi da Hika Antzerki Taldea, lehenengo aldia baita aktoreak taldekideak ez dituen obra baten zuzendaritza bere gain hartzen duena. Taldeko zuzendariaren iritziz, «aurrerapausoa» da bide berria. «Bidea zabaltea da pixka bat. Hikako taldekideak bost gara orain, baina horrek ez du esan nahi urte batzuk barru lau edo zortzi izango ez garenik. Nahi duguna da Hika aurrera ateratzea eta konturatu ginen horretarako bideak zabaldu behar zirela».

**HIKA  
AURRERA  
BEGIRA**

Beste aktore batzuk antzeztutako obra bat produzitzea gauza berria da Hikarentzat, eta baita autore batzuen obraren taularitzea ere. Hikako boskotea Emak

Bakia Baita taldeak idatzitako 'Henry Bengoa inventarium' lana prestatzen ari da buru-belarri egunotan.

«Gaur arte taldekideek landutako gidoiekin edo kanpotik hartutako ideiak landuz egindako obrak eszenaratzea izan da gure lana. Baina orain autore baten idazlana hartu dugu eta inolako moldaketarik ez diogu egin gidoiari», esan digu Intxaurreagak.

'Henry Bengoa inventarium' irailaren erditik aurrera estreinatzeke asmoa du Hikak. Baina aurretiaz hil honen 29an eta 30an jendaurreko bi emanaldi egingo ditu Billabonan, bertan ari baitira entseiuak egiten.

Obra honekin Euskal Herritik kanpo ateratzeko asmoa dute Hikakoek. Baina zaila ikusten dute 'Easoko ederrak' lana hemendik at antzezte, «izan ere, 14 lagun mugitzea garestiegia baita».